



BERANGOKO UDALA  
(BIZKAIA)

---

## Prensa Oharra Nota de prensa Prensa Oharra Nota de prensa

---

### **BERANGOK GIZA-IZAERA NABARMENA DUTEN 2013RAKO AURREKONTUAK ONARTU DITU**

#### **KONTUEK, 6,8 MILIOIKOAK, BEHARTSUENTZAKO LAGUNTZAK JASOTZEN DITUZTE**

Berangoko Udalbatzak 6,8 milioi euro inguruko Aurrekontuak onartu zituen 2013. urterako. Aurtengo kontuek aurrera egin zuten EAJren eta PSEren oneritziarekin, Alderdi Popularraren abstentzioarekin, eta Bildu eta Berangoko Ezkerraren kontrako botuekin.

“Aurrekontu zorrotza da, behar handiago duten familientzako laguntzak mantentzeagatik bereizten dena”, adierazi du Alkateak, Anabel Landa. Fadura eta Sopelanako polikiroldegietan kirola praktikatzeko eskaintzen diren diru-laguntzak mantenduko dira. Era berean, kantitate bera zuzenduko da Gizarte-Ongizate Sailarako eta Euskararako ere.

Udalak, zergen eta tasen gaineko hobariak erregulatzeko dituen ordenantza onartu du, eta ekonomikoki hornitu du. Modu honetan, hiri-izaera duten Ondasun Higiezin Zergako gehienezko %75a kobratzeko laguntzak ezarriko dira. Behar gehiago dituzten pertsonen edo familien zuzenduta egongo dira diru-laguntza hauek, krisialdi ekonomikoak gehien eragin dienei, pentsiodunei, langabetuei edo Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (DSBE/RGI) hartzaileei eta antzekoei, errenta baxuenak dituztelako.

Era berean, zaramen eta estolderiaren tasaren ordainketan hobariaz onuratu ahal izango dira. Kasu honetan, ezarritako gehienezkoa urte osoko zenbatekoaren %50a da.

#### **Inbertsioak**

2013ko aurrekontuek gastu arrunta mantentzea ahalbidetuko dute eta aldi berean inbertsioak egin ahal izango dira urte honetan, azken hauek Udalak jasotzen dituen baliabideen arabera baldintzatuta egongo direlarik. Beste gai batzuen artean, diru-sarrera horiek Santa Ana auzoko lursail batzuen salmentarekin lortuko dira.

Aurreikusitako inbertsioek Berango-Merana Ikastetxean, argiztapen publikoan eta Metroko igogailuan hobekuntzak egitea barneratzen dute. Arene eta Arebeta zonalde industrialetan Birgaitzeko Plan Bereziak (PERIS) sustatzeko eta aurrera

eramateko, Sabino Arana kaleko urbanizazio prozesu berria hasteko eta herriko umeentzako parke baten zati bat estaltzeko ere dirua zuzenduko da. 2013ko kontuak iazko aurrekontuak luzatu ondoren onartu dira eta enpleguaren alde apostua egiten dute.



Elexalde, 3 48640-Berango Tfnoa. 946680008 Faxe: 946680955